

HIRUGARREN SEKTOREA

- 1.- Zein da hirugarren sektorearen helburua?
 - a) Pertsonen zerbitzuak eskaintzea.
 - b) Enpresei zerbitzuak eskaintzea.
 - c) A eta b zuzenak dira.
- 2.- Zeintzuk dira zerbitzu publikoak?
 - a) Partikularrek ematen dituztenak.
 - b) Estatuak ematen dituenak.
 - c) Herritarrek ematen dituztenak.
- 3.- Non kokatzen dira zerbitzuak?
 - a) Hiriguneetan.
 - b) Enpresetatik urruti.
 - c) Hirien kanpoaldean.
- 4.- Nolakoak dira zerbitzuak herrialde garatuetan?
 - a) Tradizionalak eta kalitate txarrekoak.
 - b) Zerbitzu tradizionalak eta kalitate txarrekoak.
 - c) Zerbitzu aurreratuak eta kalitatezkoak.
- 5.- Zer gertatzen da herrialde batean ekonomikoki garatzen denean?
 - a) Hirugarren sektoreak garrantzia hartzen du.
 - b) Lehenengo eta bigarren sektoreak handitzen dira.
 - c) Enplegu gehiena lehenengo eta hirugarren sektoreetan ematen da.
- 6.- Zer da deslokalizazioa?
 - a) Enpresak lekuz aldatzea eskulana garestiagoaren bila.
 - b) Enpresak web gunea sortzen du internetetik saldu ahal izateko.
 - c) Enpresak lekuz aldatzea eskulana merkeagoaren bila.
- 7.- Zer da garraioa?
 - a) Pertsonak eta salgaiak leku batetik bestera eramatea.
 - b) Pertsonak leku batetik bestera eramatea.
 - c) Salgaiak (saltzeko gauzak) leku batetik bestera eramatea.
- 8.- Zeintzuk dira errepide bidezko garraioaren alde txarrak?
 - a) Edozein tokitara irits daiteke, baina asko kutsatzen dute.
 - b) Oso azkarra da eta istripu asko sortzen ditu.
 - c) Istripuak, zirkulazio-arazoak eta kutsadura.
- 9.- Ze garraioaren bidez egiten da munduko merkataritzaren %90a?
 - a) Uretako garraioaren bidez.
 - b) Aireko garraioaren bidez.
 - c) Lehorreko garraioaren bidez.

- 10.- Zer egiten dute barne merkataritzako handizkariak?
- a) Kontsumitzaileei zuzenean kantitate txikiak saldu.
 - b) Kontsumitzaileei zuzenean kantitate handiak saldu.
 - c) Ekoizleari produktu kantitate handiak erosi.
- 11.- Zer dira inportazioak?
- a) herrialde batek atzerrian egiten dituen erosketak.
 - b) herrialde batek estatuan egiten dituen erosketak.
 - c) herrialde batek besteei egiten dizkien salmentak.
- 12.- Hirugarren sektoreak EBko ekoizpenaren eta enpleguaren guztizko balioaren zer % sortzen du?
- a) %71
 - b) %29a
 - c) %53a
- 13.- Ze zerbitzu mota nabarmentzen da Espainian?
- a) Finantza zerbitzuak.
 - b) Turismo-zerbitzuak.
 - c) Zerbitzu informatikoak.
- 14.- Zein da enplegu gehien sortzen duen jarduera?
- a) Merkataritza.
 - b) Komunikazioaren teknologiak.
 - c) Finantzak.
- 15.- Bisitari kopuruari eta diru-sarreraren bolumenari dagokionez, Espainia...
- a) Munduko lehenengo turismo-potentzia da.
 - b) Munduko bigarren turismo-potentzia da.
 - c) Munduko hirugarren turismo-potentzia da.
- 16.- Espainian zenbatek egiten dute lan turismoan?
- a) %10,5a
 - b) %15a
 - c) %12a
- 17.- Ze enplegu motak dira gehien sortzen dituenak turismoak?
- a) Ostalaritza, jatetxe-arloa eta garraioa.
 - b) Ostalaritza, garraioa eta osasun zerbitzuak.
 - c) Ostalaritza, jatetxe-arloa eta kultura zerbitzuak.
- 18.- Non ematen da barne turismoa eta gehienak nola mugitzen dira?
- a) Estatutik kanpo eta hegazkinez.
 - b) Estatu barruan eta autoz.
 - c) Estatu barruan zein kanpoan eta edozein garraiobidean.
- 19.- Nondik datoz Espainiara turismo egitera datozenak?

- a) Erresuma Batutik, Alemaniatik eta Frantziatik.
- b) Erresuma Batutik, Italiatik eta Frantziatik.
- c) Estatu Batuetatik, Erresuma Batutik eta Alemaniatik.

20.- Espainiako garraioetatik zein da merkeena?

- a) Lehorreko garraioa.
- b) Itsas garraioa.
- c) Aireko garraioa.